

telebista ♦ irratia

'El Camino de Santiago en Baskonia' dokumentala emango du aurki ETB2k

Koldo San Sebastianek zuzendu du lana, eta erromesentzako gida bat da

Erredakzioa / Donostia

El Camino de Santiago en Baskonia dokumentala emango du aurki Euskal Telebistako bigarren kateak. Koldo San Sebastian kazetariak zuzendu du dokumentala, eta erromesei zuzendutako gida bat da. Euskal Herriko Donejakue Bideak azalduko dira lan horretan.

EUSKAL HERRIKO Donejakue Bideak ezagutzeko aukera izango da aurki ETB2an emango duten *El Camino de Santiago en Baskonia* dokumentalaren bidez. Dokumentala erromesentzat gida bat izatea nahi dute. Donejakue Bidearen inguruko ohitura, abesti eta kondairak jasotzen ditu, bestea beste.

Koldo San Sebastian kazetariak zuzendu du *El Camino de Santiago en Baskonia* dokumenta, eta bi zati nagusitan banatzen da. Lehen zatian, Orreaga zeharkatuz Ostabat-Izuratik Vianara doan bide klasikoa aztertzen da. Bigarrenean, berriz, Donejakue Bideak dituen bigarren mailako ibilbide garrantzitsuenak aztertzen dira. Azken horien artean dago, hain zuzen ere, Zuberoaren eta Balamasedaren artekoa.



Koldo San Sebastian kazetaria, Euskal Herriatik eta Del país de los vascos saioetako lan taldearekin.

Era berean, *El Camino de Santiago en Baskonia* dokumentalak bidearen inguruko kondairak, abestiak eta ohiturak ere jasotzen ditu. Hala, Michel Garikoitz deunaren bizitza, Virila deunaren kondaira edota herri ihauterietako pertsonaien jatorria jakinarazten dira bertan.

Bestalde, *El Camino de Santiago en Baskonia* lane-

an musika eta irudiak asko zaindu dira. Hala, besteak beste, Jean Mixel Bedaxagar abeslariak eta Leireko beneditarrak hartu dute parte dokumentaleko musikan. Irudiak, berriz, Donejakue Bidean euskal zatian aurki daitezkeen paisaia paregabeak biltzen ditu. Ildo horretan, dokumentala ikusi ostean, bertan azaltzen diren lekuak bisitatu

behar direla nabarmentzen du Koldo San Sebastian kazetariak.

Dokumental bereziak egiteaz gain, ETBko *Euskal Herriatik* eta *Del país de los vascos* saioak ere zuzentzen ditu egun Koldo San Sebastianek. Hala, Euskal Herriari buruzko 200 dokumental baino gehiago egin ditu azken urteetan ETBko kazetari horrek.

laburrean

Musika elektroakustikoa aztertuko da 'Forum' saioan, ETB2an

ETB2ko *Forum* saioan musiko elektro-akustikoaz ariko dira gaur goizeko 09:55etatik aurrera. Horri buruz hitz egiteko, David Barbero kazetariak Alfonso Garcia de la Torre Gasteizko Musika Kontserbatorioko irakaslea elkarriketatu du. Alfonso Garcia de la Torre irakaslea musika elektroakustikoaren laboratoriko arduraduna da Gasteizko kontserbatorioan, eta musika egiteko era berrien inguruan ariko da *Forum* saioan.

Lurralde exotikoetako gaixotasunak hizpide 'Bertatik bertara' saioan, ETB1ean

Lurralde exotikoetako gaixotasunak izango dira aztergai ETB1eko *Bertatik bertara* saioan gaur gaueko 21:05etatik aurrera. Horretarako, estudioan Adelaida Umaran eta Arantxa Sarasua izango dira, Andoni Aizpururekin. Umaranek eta Sarasuak CAF-Elhuyar saria jaso dute lurralde exotikoetako gaixotasunen inguruan egindako azterketa bat dela eta. Bestalde, edari freskagarriak egiten dituen Lekunberriko lantegi bati buruzko erreportaia ere eskainiko du *Bertatik bertara* saioak.

Pedro Almodovar zinema zuzendaria 'Versión española' saioan, La2 katean

Pedro Almodovar zinema zuzendari espainiar ezaguna izango da gaur gaueko 22:30etatik aurrera Espainiako La2 kateko *Versión española* saioko protagonista nagusia. *La flor de mi secreto* eta *Tacones lejanos* Almodovarren filmak emango ditu Cayetana Guillen Cuervo aktoreak Espainiako La2 katean aurkezten duen saioak. Era berean, solasaldi bat ere egingo dute *Versión española* saioan. Bertan, Pedro Almodovar zinema zuzendariak, Marisa Paredes eta Miguel Bose aktoreek eta Cayetana Guillen Cuervo aurkezleak berak hartuko dute parte.

Juanito Dorronsoro 'Hitzetik hortzera' saioan


■ Bertozale Elkartearen batzar nagusiaren inguruan ere ariko da Iñigo Aiestaranen saioa

Erredakzioa / Donostia

MARTXOAREN lehen asteburuan egindako Euskal Herriko Bertozale Elkartearen batzar nagusiaren inguruan ariko da gaur 22:30etatik aurrera ETB1eko *Hitzetik hortzera* saioa. Hala, bertan Juanito Dorronsoro estudioan izango da Iñigo Aiestaranekin batera. Dorronsoro Bertoso-

zale Elkarteko ohorezko bazkide izendatu berri dute. Bertsoak bildu eta sailkatzen aritu izan da azken hogeitun urteetan.

Bertozaleek egindako urteko balantzearen berri ere emango du gaur *Hitzetik hortzera* saioak. Era berean, batzar egunean Ereñozuko Eizmendi sagardotegian egindako jaialdiaren pasarte batzuk ere emango dituzte.



Juanito Dorronsoro *Hitzetik hortzera* saioan izango da gaur.